Euskararen soziolinguistika, plangintza eta arautzea 19-20
Irakaslea: Ibon Manterola
Ikaslea: Irati Uribesalgo Muñoz

1. Soziolinguistikaren eta hizkuntza politika eta plangintzaren oinarriak
3. jarduera: hizkuntza politika eta plangintzara hurbilketa

Irakurgaiak:

- Etxebarria, M. (2000). Principios y fundamentos de sociolingüística. Bilbo: UPV/EHU. [349-352 or.].

- Zarraga, A. (2010). Soziolinguistikari sarrera. In A. Zarraga eta beste, Soziolinguistika Eskuliburua. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra: Gasteiz. [77-79 or.].

- Reyna Muniain, F., Manterola, I. & Nandi A. (2019). Educación plurilingüe con lenguas minoritarias en contextos de diáspora y su impacto en las políticas lingüísticas en familias neohablantes: el caso del gallego en Argentina. Lengua y Migración, 11:2 (2019), 107134. [110-112 or.].

Erantzun beharreko galderak:

1. Hiru lanetan ez da modu berean azaltzen zer diren hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza, eta hizkuntza politikaren eta plangintzaren arteko loturak ere ez dira berdin berdin azaltzen. Hamar bat lerrotan, saia zaitez hiru lanetako bakoitzean auzi honen inguruan ematen diren azalpenak laburtzen.

Hiru testuen ideiak baturik, orokorrean hizkuntza politika eta planifikazioa elkarri lotuak joaten direla eta askotan termino bakartzat hartzen direla diote (HPP). Hala ere, esan beharra dago bereizgarriak direla: hizkuntza politikak ideiekin, legediarekin eta araudiekin lotura du, eta baita norberak hizkuntza erabiltzeko egiten duen hautuarekin ere; eta planifikazioak aldiz hizkuntzekiko helburu jakin batera heltzeko diseinatutako bide, egitasmo edo neurrietan datza.

Adibide argiak dauzkagu gure inguruan:
1. Hizkuntza politika Euskal Autonomi Erkidegoan euskara aintzat hartzearen aldekoa da, eta horretarako hizkuntza planifikazioa erabiltzen du, esaterako ikastetxeetan A, B eta D hizkuntzetan irakasteko neurria hartzen dute politikariek.
2. Hizkuntza politika Frantzian frantsesa hizkuntza ofizialtzat hartzea da, herritarren esku utziz departamentu jakin batzuetara mugatzen diren hizkuntzen biziraupena, eta bretoieraren, euskararen, gaskoieraren, proventzalaren edota bearneraren alde egiteko neurririk ez hartzea da hizkuntza planifikazioa; hau da, estatuko hizkuntza gutxituak laguntzen ez badira, frantsesa gailentzeko aukera handiagoa izango da.

2. Demagun baieztapen hau: “hizkuntza politika eta plangintza hizkuntza ukipen egoeretan bakarrik ikus daiteke eta hizkuntza hegemonikoen eta hizkuntza gutxituen arteko desoreka arintzeko egiten da”. Argudia ezazu ea zenbateraino zauden ados ala ez baieztapenarekin.

Ez nago baieztapenarekin ados. Alde batetik, gaur egun ukipen egoeran ez dagoen hizkuntza bat aurkitzea zinez zaila delako. Bestetik, hizkuntza gutxituen eta hegemonikoen arteko oreka arintzeko hizkuntza politika eta planifikazioak egingo balira, ez genituzkeelako kapitalismoaren gurpilean sarturik dauden eta ekonomikoki garrantzitsuenak diren estatuek inposatutako hezkuntza sistemaren mesedetara lan egiten duten hizkuntzak irakasgai izango. Frantziaren kasura itzuliko naiz

adibidetzat ikus dadin. Frantziar estatuak ingelesaren eta munduko beste hizkuntza ekonomiko garrantzitsuen aldean frantsesaren garrantzia eta estatusa kolokan egon daitekeela nabaritu duenean, neurri politikoak hartu ditu gainontzeko hizkuntzak bultzatu gabe frantsesa bere horretan gailendu dadin Errepublika osoan zehar; hala ere, hizkuntza baten estandarizazioa sustatzea ere HPP da, korpusaren HPP hain zuzen ere.

3. Demagun beste baieztapen hau: "hizkuntza politika eta plangintza erakunde publikoen kontua dira eta haiek diseinatzen eta inplementatzen dituzte." Argudia ezazu ea zenbateraino zauden ados ala ez baieztapenarekin.

Ez nago ados baieztapenarekin. Har ditzagun Alicanteko lau egoera desberdinek osa lezaketen hizkuntza elkarbizitza egoera hipotetiko bat eredutzat:

1. XX.mende hasieran industrializazioa dela eta mediterranear kostara fabrika baten lan egitera joandako Extremadurako bikote bat.
2. Alicanteko bertako pare bat pertsona.
3. Afrika iparraldetik etorritako bi bebere hiztun.
4. Ingalaterratik iritsitako eta bertan multinazional baten bulegoa muntatu duten bi enpresari.

Kasu hipotetiko honetan seguraski Extremaduratik iritsitakoek ez lukete katalana ikasteko beharrik nabarituko eta gazteleraz komunikatzeko eta bizitzeko arazorik ez lukete izango. Alicanteko pertsonek kontzientzia linguistikoa eta kulturala izanez gero seguraski katalanez hitz egitea hautatuko lukete. Berebere hiztunek integratzeko ahaleginak egingo lituzkete eta gaztelera ikasiko lukete merkatuan edo beste edozein lanpostutan sartu eta biziraun ahal izateko, baliteke seme-alabak katalana ikastearen garrantziapean heztea ere, haiek baina are hobeago integra daitezen. Ingeles hiztunek aldiz, ez dut uste ez gaztelera ez eta katalan maila gehiegi hobetzeko esfortzurik egingo luketenik, ingelesez hitz eginez gero gehiengo handi batek ulertuko lituzkeelako.

Norberak egiten du bere harremanekiko hizkuntza politika eta planifikazioa katalana, gaztelera, bereberea edota ingelesa hitz egiteko hautua egiten duenean, eta ez bakarrik hitz egin, baita ikasi ere. Historian zehar gutxietsiak izan diren hainbat komunitatetako jendeak normalean askoz prestutasun handiagoa izaten du atzerrira bizitzera joan eta bertako hizkuntza hitz eginez integratu eta lanpostu onak lortzeko; hizkuntza hegemonikoak hitz egiten dituen eta inoiz zapaldua sentitu ez denak aldiz, ez du beste munduko esfortzurik egingo, baduelako jada estatus bat. Espresaria eta ingelesa izate hutsagatik merkatari bereberea baina pribilegio gehiago dauzka eta hortaz biak ala biak atzerritarrak izan arren integratzeko izango dituzten arazoak ez dira berdinak izango. Aldi berean, Alicantekoa den eta katalanez hitz egiteko hautua egiten duen herritarrak, bere identitateari eta kulturari garrantzia eman nahi diela adierazten du.

Honenbestez, edozein hizkuntza ulertzeko, ikasteko eta erabiltzeko hautua egitean, hizkuntza politika eta plangintzak estuatuaren eskuetatik ihes egin eta herritarren borondatearen esku geratzen da, eskolan katalana ikastera behartzen bazaituzte eta zuk identitate hori ez baduzu zure sentitzen, indar eta diru asko gastatu arren hizkuntza planifikazioan, ez dute helburua lortuko hiztunak ez badu borondaterik.

4. Zein dira hizkuntza politika (eta plangintzaren) oinarrizko hiru osagaiak, Reyna Muniain, Manterola eta Nandiren artikuluan azaltzen denaren arabera?

1. Komunitatearen hizkuntza ideologia: hizkuntza erabiltzen duen komunitate horrek hizkuntzarekiko duen lotura eta identitate sentimendua.

2. Hizkuntza kudeaketa eta planifikazioa: hizkuntzaren erabilerarako kronograma eta hartuko diren neurrien deskribapena.
3. Hizkuntza praktikak eta erabilera: hizkuntzaren egunerokotasunean ematen den erabileraren azterketa, analisia eta irakurketa.